

Espedientea: 2025H1090001

Aurretiatzko kontsulta publikoa

**TOLOSAKO HIRI ORDENAZIOKO
PLAN
OROKORRAREN KATALOGOAREN
HANDITZEAREN PROPOSAMENA**

AURREKARIAK

2009ko martxoaren 3an, Udalbatzak ohiko osoko bilkuran behin betiko onespena eman zion Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren (aurrerantzean, HAPO) testu bateginari. Gaur egun indarrean dagoen Ondarearen Katalogoa HAPOren parte da, 3. Dokumentua, hain zuzen ere.

Katalogo dokumentuak, 2006ko ekainaren 30eko Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 76. artikuluan ezarritakoari jarraiki, funtsean, beren balioa eta interesa kontuan harturik babestu behar diren ondasun artifizialak zein naturalak identifikatzea zuen xede.

2019ko maiatzaren 9an, Euskal Kultura Ondarearen 6/2019 Legea onartu zen. Lege berri honen helburu nagusia kultura-ondarearen kudeaketa integrala bermatzea da, hau da, alde batetik, ondarea identifikatu, dokumentatu, ikertu, kontserbatu eta babestuko duen kudeaketa, baina horrekin batera haren transmisioa, sustapena eta balio-nabarmentzea bermatzeko konpromisoa agerian utziko duena

Consulta pública previa

**PROPUESTA DE AMPLIACIÓN DEL
CATÁLOGO DEL PLAN GENERAL
DE ORDENACIÓN URBANA DE
TOLOSA**

ANTECEDENTES

El 3 de marzo de 2009, el Pleno del Ayuntamiento aprobó definitivamente el texto refundido del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa (en adelante, PGOU). El vigente Catálogo de Patrimonio forma parte del PGOU, 3. El documento.

El documento del catálogo, de acuerdo con lo establecido en el artículo 76 de la Ley de Suelo y Urbanismo de 30 de junio de 2006, tiene como finalidad fundamentalmente la identificación de los bienes artificiales y naturales que por su valor e interés deban ser protegidos.

El 9 de mayo de 2019 se aprobó la Ley 6/2019 de Patrimonio Cultural Vasco. El objetivo principal de esta nueva ley va encaminado a garantizar la gestión integral del patrimonio cultural, una gestión que contemple su identificación, documentación, investigación, conservación y protección, pero que haga también explícito el compromiso con su transmisión, fomento y puesta en valor.



TOLOSAKO
UDALA

Legearen zioen azalpenean adierazten den moduan, Kultura-balioak aldakorrek direnez, ondarearen kontzeptua bera etengabe eraikiz doa, eta hura osatzen duten elementuak ere mudakorrek dira eta ekarpen berriak hartzeko irekita daude. Hala, euskal kultura-ondareari buruzko lege berri bat idazteko beharra ikusi zen, azken urteotan kultura-ondarearen kontzeptualizazioan gertatu den bilakaera ordenamendu juridikoan txertatzeko, zeren ondare horren azterketa- eta jardun-eremua nabarmen zabaldu baita.

Euskal kultura-ondareari buruzko legeak zehazten ditu kultura-ondarearen arloan euskal administrazio publikoen hiru mailetako bakoitzari dagozkion jarduerak, eta jarduera horien koordinazioaren ardura izango duen organoa sortzen du. Bestalde, hiru babes-maila bereizten dira, ondasunak dituen kultura-balioen garrantziaren arabera: babes berezia duten kultura-ondasunak, babes ertaina duten kultura-ondasunak eta oinarritzko babesa duten kultura-ondasunak.

2020ko Udalbatzak, urriaren 20ko bileran, behin betiko onetsi zuen Tolosako Hirigintza Ondarearen Katalogoaren aldaketa. Aldaketak honako hauek ziren:

Tal y como se señala en la exposición de motivos de la Ley, al ser los valores culturales cambiantes, el concepto mismo de patrimonio se encuentra en permanente construcción y los elementos que lo configuran forman un conjunto susceptible de modificación y abierto a nuevas incorporaciones. Así, se vio la necesidad de redactar una nueva Ley de Patrimonio Cultural Vasco que responda a la necesidad de incorporar al ordenamiento jurídico la evolución conceptual que el patrimonio cultural ha experimentado en los últimos años, en los que se ha ampliado considerablemente su campo de análisis y de actuación.

La ley de patrimonio cultural vasco especifica las actuaciones que en materia de patrimonio cultural corresponden a cada uno de los tres niveles de las administraciones públicas vascas y crea el órgano encargado de garantizar la coordinación de las mismas. Se distinguen tres niveles de protección en función de la importancia de los valores culturales de los que sea portador el bien: bienes culturales de protección especial, bienes culturales de protección media y bienes culturales de protección básica.

El Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el día 20 de octubre de 2020 aprobó definitivamente la modificación del Catálogo del Patrimonio Urbanístico de Tolosa. Las modificaciones eran las siguientes:



TOLOSAKO
UDALA

- "Trenbide langilearen etxea" (52 zb.) katalogotik kendu zen.
- "Telegrafos dorrea"ren (30 zb.) izena aldatu, eta, haren ordezt, "Elektrifikazio etxea" deitzea. Katalogoan mantentzea proposatu zen, lehenengo babes mailarekin. Eraikin honen alboko egitura gehigarria katalogotik kendu zen.

2022ko abenduaren 14an, Tolosako Udalak, bere udal-mugartean dagoen kultura-ondareari buruzko informazioa eskatu zion Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzari. 2023ko urtarrilaren 12an jaso zen Eusko Jaurlaritzatik udalak aurretiaz eskatutako Tolosako udalerriko kultura ondareari buruzko informazioa. Bertan, gaur egun katalogoan barneratuta ez dauden ondasun asko zerrendatzen dira.

14/2023 Legea, azaroaren 30ekoa, Euskal Kultura Ondarearen maiatzaren 9ko 6/2019 Legea aldatzekoa indarrean sartu zen. Lege honen zioen azalpenean jasotzen da Legearen xedea zein den: batetik, kultura-ondasun higiezin bat oinarritzko babes-mailan sartzeko irizpideak eta udal-katalogoak egoera berrira egokitzeko aldia zehaztea; eta, bestetik, energia-iturri berriztagarriak alternatiba jasangarri erreal gisa gero eta gehiago erabiltzen direnez, beharrezkoa da Euskal Kultura Ondarearen Legea aldatzea, iturri horiek ondareko ondasun higiezinetan sartzeko, bereziki bizitegi-izaerakoetan, energia-eraginkortasuna ondasun horien

- Quitar del catálogo "Casa del empleado ferroviario" (nº 52).
- Cambiar la denominación de la "Torre de Telégrafos" (nº 30) por la de "Casa de electrificación". Se propuso mantenerlo en el catálogo con el primer nivel de protección. La estructura adosada contigua a este edificio fue eliminada del catálogo.

Con fecha 14 de diciembre de 2022, el Ayuntamiento de Tolosa solicitó a la Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco información sobre el patrimonio cultural existente en su término municipal. Con fecha 12 de enero de 2023 se recibe del Gobierno Vasco la información solicitada previamente por el Ayuntamiento sobre el patrimonio cultural del municipio de Tolosa. En él se enumeran muchos de los bienes que actualmente no están incluidos en el catálogo.

Entra en vigor la Ley 14/2023, de 30 de noviembre, de modificación de la Ley 6/2019, de 9 de mayo, de Patrimonio Cultural Vasco. La exposición de motivos de esta Ley recoge el objeto de la misma: por un lado, determinar los criterios de inclusión de un bien cultural inmueble en el nivel de protección básica y el periodo de adaptación de los catálogos municipales a la nueva situación; y, por otro lado, dada la creciente utilización de las fuentes de energía renovables como alternativas reales sostenibles, se hace necesario modificar la Ley de Patrimonio Cultural Vasco para incorporar dichas fuentes a los bienes inmuebles del patrimonio,



TOLOSAKO
UDALA

ondare-balioekiko errespetuarekin orekatuta lortzeko, eta higiezin horiek erabiltzeari uko egitea saihesteko, energia eskuratzeko kostu handiagoa dela eta. 14/2023 Legeko 1. Artikulua, 6/2019 Legeko 8. artikulua aldatzen du eta honela geratzen da idatzita:

«8. artikulua.– Babes-mailak.

1.– Euskal kultura-ondarea osatzen duten ondasunak, dagokien babes-mailaren arabera, honelakoak izango dira:

a) **Babes berezia duten kultura-ondasunak:** babes berezia jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin, higigarri eta immaterial nabarmenenek.

b) **Babes ertaina duten kultura-ondasunak:** babes ertaina jasoko dute lege honen 2.1 artikuluko kultura-balioetako bat duten EAEko kultura-ondasun higiezin eta higigarri garrantzitsuek.

c) **Oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak:** oinarrizko babesa duten kultura-ondasunak izango dira lege honen 2.1 artikuluan aipatutako kultura-balioetakoren bat duten eta udalek une bakoitzean indarrean dauden udalaren hirigintza-plangintzako katalogoetan hala

en particular a los de carácter residencial, con el fin de lograr una eficiencia energética equilibrada con respecto a los valores patrimoniales de dichos bienes, y evitar la renuncia al uso de dichos inmuebles por el mayor coste de adquisición de energía. El artículo 1 de la Ley 24/2023 modifica el artículo 8 de la Ley 6/2019, con la siguiente redacción:

«Artículo 8. Niveles de protección.

1. Los bienes que componen el patrimonio cultural vasco se clasificarán en alguno de los siguientes niveles de protección:

a) **Bienes culturales de protección especial:** se declararán bienes culturales de protección especial aquellos inmuebles, muebles e inmateriales más sobresalientes de la CAPV que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley.

b) **Bienes culturales de protección media:** se declararán bienes culturales de protección media aquellos inmuebles y muebles relevantes de la CAPV que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley.

c) **Bienes culturales de protección básica:** serán bienes culturales de protección básica aquellos inmuebles de interés cultural que reúnan alguno de los valores culturales citados en el artículo 2.1 de esta ley y que así se determinen por los respectivos ayuntamientos en los catálogos



TOLOSAKO
UDALA

zehazten dituzten kultura-intereseko higiezinak, zaharberritze zientifikoko edo zaharberritze kontserbatzaileko jarduketak merezi dituztelako.

Nolanahi ere, oinarritzko babeseko kultura-ondasunen izaera galduko dute babes berezi eta ertainekotzat jo diren edo jotzen diren eta, beraz, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan sartuta dauden kultura-ondasunek.

*2.– Aurreko sailkapena **udal-babeseko kultura-ondasunen** sailkapenarekin osatuko da. Azken horiek hirigintza-plangintzan eta udal-katalogoetan zehaztuko dira, eta tresna horietan ezarritako babes-araubidearen mende egongo dira.*

3.– Bizirik dagoen egile baten kultura-ondasunaren babesa salbuespentzat joko da, eta kasu horretan titularren berariazko baimena beharko da».

Tolosako Udalak udal-mugartean dagoen kultura-ondarea babesteko asmoz, Udalbatzak, 2024ko maiatzaren 30ean, Ohiko Osoko Bilkuran, besteak beste, behin betiko onespena eman zion Tolosako HAPOko Ondarearen Udal-Katalogoaren aldaketari (GAO 2024/06/13 114.zk.); eta, honela, San Frantzisko pasealekua 37 zenbakian dagoen «Villa Sagrado Corazón» eraikinari udal-babesa eman zitzaion (katalogoan 96 zk.)

vigentes en cada momento en el planeamiento urbanístico municipal por ser merecedores de actuaciones de restauración científica o de restauración conservadora.

En todo caso, perderán la condición de bienes culturales de protección básica aquellos que hayan sido o sean declarados de protección especial y media y, por tanto, incluidos en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco.

*2. La clasificación anterior se complementará con la de los **bienes culturales de protección municipal**. Estos últimos se determinarán en el planeamiento urbanístico y en los catálogos municipales y estarán sujetos al régimen de protección establecido en dichos instrumentos.*

3. La protección de un bien cultural de un autor o autora vivo tendrá carácter excepcional y requerirá la autorización expresa de su titular.»

Con el fin de proteger el patrimonio cultural existente en el término municipal por parte del Ayuntamiento de Tolosa, el Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria, con fecha 30 de mayo de 2024, aprobó definitivamente, entre otros, la modificación del Catálogo Municipal de Patrimonio del PGOU de Tolosa (BOG nº 114 de 13/06/2024), otorgando así la protección municipal al edificio Villa Sagrado Corazón, sito en el Paseo de San Francisco nº 37 (nº 96 del catálogo).



TOLOSAKO
UDALA

Tolosako Udalbatzak, 2024ko ekainaren 27an, Ohiko Osoko Bilkuran, bestek beste, honako erabaki hau hartu zuen:

11. Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan hiriguneko hainbat txalet tipologiako eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedienteari hasiera ematea eta, horietan, hirigintzako lizentzia-emateak etetea.

Horretarako, kontuan hartu zen, batik bat, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Kultura Ondarearen Zuzendaritzatik 2023ko urtarilaren 12an jasotako informazioa, hainbat eraikin Tolosako HAPOko ondarearen udal-katalogoan barneratzea proposatzen duena. Zehazki, udaleko arkitektoek proposatutako hiriguneko txalet tipologiako 18 eraikin, bestelako bizitegi-eraikin kolektiboko 25 eta 3 eraikin instituzional zerrendatu dira; guztira 46 eraikin.

2024ko urriaren 25ean, 2024/2422 Dekretuaren bitartez Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP kontratatu zen Tolosako HAPO-ko ondarearen udal-katalogoan eraikinak, bizitegi-eraikin kolektibo zein eraikin instituzionalak barneratzeko espedientearen zehaztutako eraikinen ondare-azterketa gauzatzeko eta hauen banakako fitxak idazteko, baita Villa Sagrado Corazón eraikinaren fitxa idazteko ere.

El Pleno del Ayuntamiento de Tolosa, en sesión ordinaria celebrada el día 27 de junio de 2024, adoptó, entre otros el siguiente acuerdo:

11. Iniciar el expediente de inclusión en el catálogo municipal de patrimonio del PGOU de Tolosa de edificios de tipología de chalet, edificios residenciales colectivos e institucionales del núcleo urbano, con suspensión de licencias urbanísticas.

Para ello, se tuvo especialmente en cuenta la información recibida el 12 de enero de 2023 desde la Dirección de Patrimonio Cultural del Departamento de Cultura y Política Lingüística del Gobierno Vasco, que propone la inclusión de varios edificios en el catálogo municipal de patrimonio del PGOU de Tolosa. En concreto, se enumeran 18 edificios de tipología de chalet del núcleo urbano, 25 edificios residenciales colectivos y 3 edificios institucionales propuestos por los arquitectos municipales, con un total de 46 edificios.

El 25 de octubre de 2024, mediante Decreto 2024/2422, se contrató a Zetabi Arkitektura Bulegoa SLP. para la realización del estudio patrimonial de los edificios definidos en el expediente de inclusión de edificios, tanto de carácter colectivo residencial como institucional en el Catálogo Municipal de Patrimonio del PGOU. de Tolosa y la redacción de las fichas individualizadas de los mismos, así como para la redacción de la ficha del edificio Villa Sagrado Corazón.

ESKUacc1f0e4-2535-4b7e-b62d-a5ea99885fa4



TOLOSAKO
UDALA

ARAU ESPARRUA

39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Prozedura Erkidearenak, VI. Tituluan arautzen ditu administrazio publikoen legegintza ekimena eta erregelamenduak egiteko ahala.

Honela, lege horren 133. artikuluan xedatutakoaren arabera, araudi proiektu bat prestatu aurretik, kontsulta publikoa egin behar da. Honako hau dio artikulua horrek:

«133. artikulua. Herritarrek lege-mailako arauak eta erregelamenduak egiteko prozeduran parte hartzea.

1.- Legearen edo erregelamenduaren proiektua edo aurreproiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunaren webgunearen bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauak uki ditzakeen subjektuek eta antolakunderik ordezkagarrienek puntu hauei buruz:

- a) Ekimenaren bitartez konpondu nahi diren arazoak.*
- b) Arau hori onestea beharrezko eta egoki den.*
- c) Arauaren helburuak.*
- d) Izan litezkeen bestelako aukera erregulatzaile eta ez-erregulatzaileak (...).*

Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Sailak proposatu du, beharra dago eta,

MARCO NORMATIVO

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, regula en su Título VI la iniciativa legislativa y la potestad reglamentaria de las Administraciones Públicas

Así, el artículo 133 de la citada ley establece que, con carácter previo a la elaboración de un proyecto normativo, debe realizarse una consulta pública. Dicho artículo dice lo siguiente:

«Artículo 133. Participación de los ciudadanos en el procedimiento de elaboración de normas con rango de Ley y reglamentos.

1. Con carácter previo a la elaboración del proyecto o anteproyecto de ley o de reglamento, se sustanciará una consulta pública, a través del portal web de la Administración competente en la que se recabará la opinión de los sujetos y de las organizaciones más representativas potencialmente afectados por la futura norma acerca de:

- a) Los problemas que se pretenden solucionar con la iniciativa.*
- b) La necesidad y oportunidad de su aprobación.*
- c) Los objetivos de la norma.*
- d) Las posibles soluciones alternativas regulatorias y no regulatorias (...).*

El Área de Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa, plantea la



TOLOSAKO
UDALA

berrikustea Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoaren handitzea.

Legeak ezarritako prozedura betetzeko, aurretiazko kontsulta publikoa egingo da Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoa handitzea onartu baino lehen.

Herritarrek, erakundeek eta elkarteek hala iritziz gero, parte hartu ahal izango dute eta ekarpenak egin, bi bide hauetako edozein erabilita:

Helbide elektroniko honetara bidalita: hirigintza@tolosa.eus
Udalaren Erregistroan aurkeztuta, aurrez aurre zein telematikoki (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

Horretarako, 20 lanegun izango dituzte, iragarkia argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

EKIMENAREN BITARTEZ KONPONDU NAHI DIREN ARAZOAK

Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorraren Katalogoa handitzearekin lortu nahi da udalerrian balio arkitektonikoa duten higiezinak oinarritzko babesa edo udal babesa duten kultura-ondasuntzat deklaratzeko eta, modu honetan, balio horiek desager ez daitezen babesteko eta esku hartzeko irizpideak jasotzeko. Babestuko diren eraikin bakoitzaren fitxak, besteak beste, eraikinaren ezaugarriak, balioa duten elementuak,

necesidad de revisar la ampliación del Catálogo del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

Para el cumplimiento del procedimiento establecido por la ley, se realizará una consulta pública previa a la aprobación de la ampliación del Catálogo del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa.

La ciudadanía, instituciones y asociaciones podrán participar y realizar aportaciones a través de cualquiera de estas dos vías:

Por e-mail a la siguiente dirección: hirigintza@tolosa.eus.
En el Registro del Ayuntamiento, tanto presencial como telemáticamente (Plaza Zaharra 6-A, Tolosa).

A tal efecto, dispondrán de 20 días hábiles contados a partir del día siguiente al de la publicación del anuncio

PROBLEMAS QUE SE PRETENDEN SOLUCIONA CON LA INICIATIVA

Con la ampliación del Catálogo del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa se pretende que los inmuebles de valor arquitectónico sean declarados bienes culturales de protección básica o municipal en el municipio, incorporando criterios de protección e intervención para evitar su desaparición. Las fichas de cada uno de los edificios a proteger definen, entre otros aspectos, las características del edificio, los



TOLOSAKO
UDALA

esku-hartze irizpideak eta babes maila definitzen dituzte.

ARAU HORI ONESTEA BEHARREZKO ETA EGOKI DEN

Hamasei urte igaro dira Tolosako HAPOrakin batera Katalogoa onartu zenetik eta, ordutik hona, beharra ikusi da zenbait higiezinak duten antzinatasunagatik edota udalerriko historiaren beste garai batzuetako elementu adierazgarriak dituztelako zerrendan ere sartzea

Arrazoi hori medio, eta aintzat harturik aurreko atalean adierazitako helburuak zein udalek babestu beharreko ondasunen hirigintza-katalogoak idazteko eta kudeatzeko duten eginkizuna, Tolosako Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzu, Ingurumena, Mugikortasuna eta Trantsizio Energetikoa Sailak beharrezkotzat ikusten du, Euskal Kultura Ondarearen EAEko Erregistroan inskribatzeko proposatutako higiezin zerrendan eta udaleko hirigintza-plangintzaren bidez babesteko proposatutakoen zerrenda kontuan hartuta Tolosako Hiri Ordenazioko Plan Orokorren Katalogoaren handitzea sustatzea eta bultzatzea.

KATALOGOA HANDITZEAREN HELBURUAK.

Udalerriko eraikinek neurri batean azaltzen dute Tolosa zer izan den eta den eta, zorionez, arkitektura-balio handiko higiezin ugari daude. Horietako askok izaera berezia ematen diote

elementos de valor, los criterios de intervención y el grado de protección.

LA NECESIDAD Y OPORTUNIDAD DE SU APROBACIÓN.

Han pasado dieciséis años desde la aprobación del Catálogo junto con el PGOU de Tolosa y desde entonces se ha visto la necesidad de introducir determinados inmuebles en el listado por la antigüedad o por tener elementos representativos de otras épocas de la historia del municipio.

Por esta razón, y teniendo en cuenta tanto los objetivos señalados en el apartado anterior como la función de los ayuntamientos en la redacción y gestión de los catálogos urbanísticos de bienes a proteger, el Departamento de Urbanismo, Obras y Servicios, Medioambiente, Movilidad y Transición Energética del Ayuntamiento de Tolosa considera necesario promover e impulsar la ampliación del Catálogo del Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa teniendo en cuenta la relación de inmuebles propuestos para su inscripción en el Registro de la CAPV del Patrimonio Cultural Vasco y los inmuebles propuestos para su protección a través del planeamiento urbanístico municipal.

OBJETIVOS DE LA AMPLIACIÓN DEL CATALOGO

Los edificios del municipio explican en parte lo que ha sido y es Tolosa y, afortunadamente, hay numerosos inmuebles de gran valor arquitectónico. Muchos de ellos



TOLOSAKO
UDALA

udalerriri eta ondare arkitektoniko diren neurrian babestu beharrekoak dira

Hori dela eta, Katalogoak tresna eraginkorra izan nahi du Tolosako higiezinak merezi duten babes berezia, balio arkitektonikoa dutelako, defendatzeko eta balio horiek desagertzea daitezen.

Hori guztia arlo horretan indarrean dauden lege-xedapenetan ezarritakoarekin bat etorriz, indarrean dagoen hirigintza-plangintza barne.

KATALOGOAN BARNERATZEKO PROPOSATZEN DIREN ERAIKINAK

Honako zerrendako eraikinak dira, katalogoko II. mailan, udal babesa duten ondasun higiezinetan, sartzea proposatzen direnak.

96. *Villa Sagrado Corazón*
(dagoeneko katalogoan sartuta dago. Fitxa gehitzen da)
97. Arkaute txaleta
98. Eguzki toki etxea
99. Garmendia etxea
100. Guadalupe fabrika. Langileen etxebizitza (55-1)
101. Guadalupe fabrika. Langileen etxebizitza (55-2)
102. Ibai-gain
103. Ibaralde kalea 1 etxea
104. Ibaralde kalea 3 etxea
105. Iruña ibiltokia 2-4 etxea
106. Izaskun etxea
107. Kondeaneko aldapa 7 etxea
108. Kondeaneko aldapa 30 etxea
109. San Frantzisko pasealekua 20 etxea

otorgan un carácter especial al municipio y deben ser protegidos como patrimonio arquitectónico

Por ello, el Catálogo pretende ser un instrumento eficaz para defender la especial protección que merecen los inmuebles de Tolosa, por su valor arquitectónico, y evitar que estos valores desaparezcan.

Todo ello de conformidad con lo establecido en las disposiciones legales vigentes en la materia, incluido el planeamiento urbanístico vigente.

EDIFICIOS QUE SE PROPONEN INCLUIR EN EL CATÁLOGO

Los edificios que se proponen incluir en el nivel II del catálogo, los bienes inmuebles de protección municipal, son los que se relacionan a continuación:

96. *Villa Sagrado Corazón (está incluido en el catálogo, se incorpora la ficha)*
97. Chalet Arkaute
98. Eguzki toki etxea
99. Garmendia etxea
100. Guadalupe fabrika. Langileen etxebizitza (55-1)
101. Guadalupe fabrika. Langileen etxebizitza (55-2)
102. Ibai-gain
103. Ibaralde kalea 1 etxea
104. Ibaralde kalea 3 etxea
105. Iruña ibiltokia 2-4 etxea
106. Izaskun etxea
107. Kondeaneko aldapa 7 etxea
108. Kondeaneko aldapa 30 etxea
109. San Frantzisko pasealekua 20 etxea



TOLOSAKO
UDALA

- | | |
|--|--|
| 110. San Frantzisko pasealekua 22 etxea | 110. San Frantzisko pasealekua 22 etxea |
| 111. San Frantzisko pasealekua 43 etxea | 111. San Frantzisko pasealekua 43 etxea |
| 112. Uzturre kalea 4,6,8 eta 10 etxeak | 112. Viviendas calle Uzturre 4,6,8 y 10 |
| 113. Villa Maria | 113. Villa Maria |
| 114. Villa Maria Juanita | 114. Villa María Juanita |
| 115. Antzuola eraikina | 115. Antzuola eraikina |
| 116. Aranguren eraikina | 116. Aranguren eraikina |
| 117. Banco Gipuzkoano | 117. Banco Gipuzkoano |
| 118. Belate pasealekua 1 bis etxea | 118. Belate pasealekua 1 bis etxea |
| 119. Bidezainen etxea | 119. Bidezainen etxea |
| 120. Bizkaia Taldea 11-15 | 120. Bizkaia Taldea 11-15 |
| 121. Felipe Gorriti 4 plaza etxea | 121. Felipe Gorriti 4 plaza etxea |
| 122. Foru Etorbidea 1 etxea | 122. Foru Etorbidea 1 etxea |
| 123. Foru Etorbidea 2 etxea | 123. Foru Etorbidea 2 etxea |
| 124. Geltoki etxea 1 | 124. Geltoki etxea 1 |
| 125. Grupo Andra Mari | 125. Grupo Andra Mari |
| 126. Gudari 1 etxea | 126. Gudari 1 etxea |
| 127. Igeralde kalea 17-19 etxea | 127. Igeralde kalea 17-19 etxea |
| 128. Kondeaneko aldapa 3 etxea | 128. Kondeaneko aldapa 3 etxea |
| 129. Kondeaneko aldapa 12-14 etxeak | 129. Kondeaneko aldapa 12-14 etxeak |
| 130. Laskoain etxea 10-12 | 130. Laskoain etxea 10-12 |
| 131. Nafarroa etxea 13 | 131. Nafarroa etxea 13 |
| 132. Oyarbide hostala | 132. Oyarbide hostala |
| 133. Pablo Zabala kapitainaren taldea | 133. Pablo Zabala kapitainaren taldea |
| 134. San Frantzisko pasealekua 1 etxea | 134. San Frantzisko pasealekua 1 etxea |
| 135. San Frantzisko pasealekua 17 etxea | 135. San Frantzisko pasealekua 17 etxea |
| 136. San Frantzisko pasealekua 35 | 136. San Frantzisko pasealekua 35 |
| 137. Santa Klara 3 etxea | 137. Santa Klara 3 etxea |
| 138. Zuberoa taldea | 138. Zuberoa taldea |
| 139. Zumalakarregi pasealekua 1 etxea | 139. Zumalakarregi pasealekua 1 etxea |
| 140. Zumalakarregi pasealekua 3-4 etxea | 140. Zumalakarregi pasealekua 3-4 etxea |
| 141. Bigarren mailako osasun-zentroa eta ama klinika | 141. Bigarren mailako osasun-zentroa eta ama klinika |
| 142. Eskola zaharrak | 142. Eskola zaharrak |

ESKUacc1f0e4-2535-4b7e-b62d-a5ea99885fa4



143. Ureta higiezinaren elkartea

143. Ureta higiezinaren elkartea

Tolosan, sinaduraren datan.
UDAL IDAZKARIA
Sara Berasategui Fuertes



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025H1090001-AURRETIAZKO KONTSULTA PUBLIKOA/CONSULTA PUBLICA PREVIA I